

LATSIBI ELABERRIAREN AURKEZPENA

Bilbao, 1989-V-16

Mirari Alberdi

Euskaltzaindiak eta Labayru Ikastegiak argitaratu berri duten *Latsibi* nobelaren azalean bertan ageri denez, nobela hau kaleratu ahal izateko egin beharreko prestakuntza-lana izan da nagusiki nik egin dudana. Lan nagusia, jakina, eta benetan meritua duena, Resurrección Maria Azkuek berak egina da, berak idatzi bait zuen eleberria, berak egin irakurleari testua ulertzen laguntzeko oharrak, berak gertu utzi liburuan zehar agertu beharreko irudiak, e. a., e. a. Obra hau osatuko zuten atal guztiak, beraz, prest utzi zituen Azkuek (batzuk makinaz idatzita, besteak eskuz) eta gure lana, besteak beste, obra hau inprimategira bidali ahal izateko txukundu, ordenatu eta ilun zeuden gauzak argi jartzea izan da, hau da, Azkuek makinaz idatzirik utzi zigun bertsioan berak eskuz egindako zuzenketak eta aldaketak argi jarri, makinaz idazterakoan kopiatu gabe gelditu ziren zatiak eta Azkuek eskuz kopiatu zituenak transkribatu, ortografia gaurkotu, eta era horretako beste zenbait gauza.

Latsibi eleberriaren balioari dagokionez, euskal literatura murritzean leku garrantzitsua izango duen obra dela uste dut, ez agian balio literario apartekorik duelako (denok dakigu ez dagoela euskal literatura maila literarioan beste hizkuntza normalizatu indartsuetan idatzi den literaturarekin gonparatzerik), baina bai euskal literaturak dituen muga guztien barruan bere garaiko eleberrien artean mardulena delako, eta baita euskal literatura osoko mardulenetakoa ere, Azkuek euskal lexikoaren garbitasunaz zuen kezka eta kezka horri erantzuteko erabiltzen zituen bideak bertan argi ageri direlako eta garai bateko hizkuntzari buruzko pentsamoldea eta Azkueren garaian bizi izan zuten giroa isladatzen dituelako. Aipagarria iruditzen zait baita ere, bere originaltasunagatik, *Latsibiren* gaia edo kontakizuna: sakoneko esannahia eta interpretazioa alde batera utzirik (hori Kar-mele Olanok aztertu du liburuaeren sarreran datorren "R. M. Azkue eta bere obraz zertxobait" lanean), nobelari zehar kontaktzen zaiguna, bi hitzetan esanda, hauteskunde batzuren aurreko egunetan eta garaile izateko ahaleginetan ideologia ezberdinetako bi talderen artean gertatzen diren eztabaidak eta burrukak dira.

Ez dut uste hauteskunde giroa euskal literaturan maiz erabili izan denik eta alde horretatik *Latsibi* originala dela esan liteke.

Azkenik, bukatzeko, Azkuek *Latsibi* eleberria noiz idatzi zuen jakiteko asmoz egindako azterketa aipatu nahi nuke; Euskaltzaindiaren "Azkue Biblioteka"-ko bibliotekari-orde den Jose Antonio-Martijaren laguntzaz begiratu eta aztertu nituen

puntu hau argitzeko lagungarri izan zitezkeen dokumentuak, hala nola, Azkueren *Euskalerraren Yakintzaren* eskuizkribua, 1930 inguruan idazten ari zena eta *Latsibiren* aipamena egiten duena “escribí hace ya muchos años una novela intitulada *Latsibi*” esanez, Azkuek bere bizitzan zehar garai ezberdinetan idatzitako gutunak (beste batzuren artean gipuzkerazko bertsioa prestatu zuen Gerard Baehr-i idatzitakoak eta haregandik jasotako erantzunak), etab. Guzti honetatik lortu genituen erreferentzietan oinarrituz, *Latsibi* XX. mendeko bigarren hamarkadan idatzi zen ustea atera genuen eta beste erreferentzia edo datu zehatzagorik aurkitzen ez dugun bitartean nobela garai horretakoa dela pentsa genezake.

Esker bereziak eman nahi dizkiot Labayru Ikastegiko Adolfo Arejitari bera izan zelako lan hau egiteko aukera eskaini zidana.